

# 2014ko UZTAILAREN 21eko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUKO BILKURA

Herriko Kontseilua Herriko Etxean bildu da, Vincent Bru Jaunaren lehendakaritza pean, 2014ko uztailaren 21ean, astelehenarekin, 20:00etan.

Hor ziren: Vincent Bru Jauna, Auzapeza, Bernadette Jogleux Anderea, Christian Devèze Jauna, Eliane Noblia Anderea, Frédéric Bardin Jauna, Pascale Lespade Anderea, Didier Irastorza Jauna, Eliane Aizpuru Anderea, Henri Saint Jean Jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq Anderea, Vincent Goytino Jauna, Christiane Hargain-Despéries Anderea, Patrice Dor Jauna, Yolande Huguenard Anderea, Jean-Jacques Lassus Jauna, Argitxu HIRIGOYEN Anderea, Jean-Noël Magis Jauna, Corinne Othateguy Anderea, Peio Etchelecu Jauna, Maryannick Hirigoyen Anderea, Roger Barbier Jauna, Carmen Gonzalez Anderea, Pascal Bourguet Jauna, Véronique Larronde Anderea, Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea, Pantxo Michelena Jauna, herriko kontseilariak.

Barkatuak: Camille Jenvrin Jauna, herriko kontseilaria.

Ahalordea: C. Jenvrin Jaunak B. Jogleux Andereari.

Saioa ireki aitzin, Auzapez Jaunak puntua egiten du 2014ko uztailaren 4ko uholdeei buruz:

« Kanbo eta Euskal Herriko hainbat herrirentzat, ostirala beltza izan zen. Urek eta lohiak hogoi bat familien etxeak estali dituzte. Bainuetxea bera ere estalia izan da, eta izugarritzko desmasiak gertatu hornikuntza teknikoetan, 74 ibilgailu erabilezinak, 182 kurista berriz aloitzekoak. Errobi ordokian ustiatzen duten arto eta gehien bat biper ekoizleen laborantzen zati bat edo osoki suntsituak izan dira. SOBAMAT enpresako meknika eta soldatadun batzuen ibilgailuak ere suntsituak izan dira.

Herriari dagokionez, kalteak badira bide eta ur araztegian.

Entseatu gira ahal bezain bat kaltetuen odoan izaten eta herriko langileen esku hartzea, auzo, lagun-en elkartasuna preziatu dute.

Hori hala izanki, elkartasun horren bitartez, denek neurtzen dituzte ehun urte guziz gertatzen den ur handitze honen ondorio biziki pisuak:

- Hondamendi ekonomikoa aurten hetsirik egonen den bainuetxerako baina ere Kanbo eta eskualderako. Sasoia Kanbon eta Kanboren inguruan hila da.
- Hondamendi soziala: 135 soldatadun langabezia teknikoan egoteko arriskuan.
- Hondamendia laborantza arloan: laborariek diru zailtasun handian.

Herriak gutunak helarazi dizkie kaltetu guziei desmarta administratiboen berri izan dezaten. Hondamendi natural onartze eskaera bat ere egin du eta ministerioarteko agindua 2014ko uztailaren 9an hartua izan da. Laborantza kalamitate eskaera bat pausatu izanen da Estatua eta Laborantza Ganbarako zerbitzuei.

Orain etorkizunari pentsatu behar da eta 2015 eta datozen urteak prestatu jendeek Kanbora itzultzeko betiko plazera izan dezaten. Hiri horren irudi baikorra eman, ur hiriaren inpaktoa 2015etik beretik berreskuratu behar da. »

Auzapez Jaunak esker beroak helarazi nahi dizkie gertakri horien garaian jarrera bikaina ukan duten herriko langile guziei.

Auzapez Jaunak desiratzen du Herriko Kontseiluak bere elkartasuna zinez marka dezan Kanboko besten kariatara zerbitzatu hautetsien apairua ezeztatuz. Proposatzen du apairu hau aperitifa batekin ordezkatea auzoko herrietako auzapezak eta Estatuko administrazioetako ordezkariak eskertzeko erakutsi duten sustenguaz.

A. Hiriart-Urruty Anderea dolutzen da krisi batzordean sartzeko paradarik ez izateaz. Auzapez Jaunari gutun bat igorri dio, eta gutun honen ondorioz oposioko ordezkari bat errezebitua izan da agorrilaren 10ean, ostegun goizarekin, erran nahi baita 7 egun hondamendiaren ondotik.

Auzapez Jaunak erantzuten dio nahiago izan duela urgentzian tokian bereko ekintza antolatu. Hiriart-Urruty Anderea eta Michelena Jauna errezebitu dituelarik uztailearen 10ean, ostegunarekin, bere mugikorreko zenbakia eman die.

N. Aicaguerre Andereak zehazten du oposizioa ez dela gomitatua krisi batzorde horretan parte hartzeko.

Auzapez Jaunak erantzuten dio aski gauza bazuela pentsatzeko orduan, oposizioa abisatu aitzin.

N. Aicaguerre Andereak zehazten du sustengu psikologikoa proposatzen zieziaiekela kaltetuei.

A. Hiriart-Urruty Andereak gehitzen du Donibane Garazin, CMPP-k (Centre Médico-Psycho-Pédagogique) kaltetuen haurrak segitzen dituela.

Auzapez Jaunak pentsatzen du jendeek, psikologoa baino gehiago, sustengu materiala, jestu bat igurikatzen dutela.

N. Aicaguerre Andereak pentsatzen du biak beharrezkoak direla.

P. Bacardatz Jaunak galdegiten du gai honi buruzko esperientzia itzultzerik izan denez, prefeturaren mailan.

Auzapez Jaunak erantzuten dio Prefeta eta Suprefetari galdeka hasi zaiela eta hauek Météo Franceko txostena aipatu diote. Prefetura ez du meteo ingeniariarik. Estatuaren erantzuna « ez da zientzia zuzena » erratea da.

## **1 – Saioko idazkariaren izendatzea.**

Hor ziren kideek **aho batez**, Argitxu HIRIGOYEN Anderea izendatzen dute saioko idazkari gisa.

## **2 – Azken saioko bilkura agirien onartzea.**

2014ko ekainaren 23ko P.V./B.A.: Hiriart-Urruty oharrarazten du jotze akats bat badela, orotariko gaietan eta bereziki P. Michelena Jaunak egin oharra Assantza kultur eremuaren estrenari buruz: gomitak elebarrerekoak dira eta ez bakarrizketakoak.

Auzapez Jaunak erantzuten du akats hori zuzendua izanen dela.

Herriko Kontseiluak onartzen du 2014ko ekainaren 23ko saioko bilkura agiria, A. Hiriart-Urruty Andereak egin oharrarekin.

### **3 –2014ko uztailaren 4ko aro txarrak.**

2014ko uztailaren 4ko uholdeen ondorioz, Herriko kontseiluari galdegiten zaio:

- Hondamendi natural egoera onartzeaz iritzi bat ematea, partikularrek kalte-ordainak eskura ditzaten asurantz etxetik,
- Hondamendi naturalek hunkitu lurralde kolektibitateen aldeko Elkartasun funtsari eskaera egitea asuratzen ahal ez diren ondasunetarako (bideak),
- Laborantza kalamitateen bermatzeko Funts Nazionalari eskaera egitea. Alabaina, laborariak ondasun higigarri eta higiezinatarako asuratuak dira. Laborantza mozkinak aldiz, ez dira denak zuzenbide komun gisa bermatuak asurantz etxeen partetik.
- Kontseilu Nagusiari eskaera egitea berak halabeharrez esku har dezakeelako, Elkartasun funtsaz gain lurralde kolektibitateak laguntzeko uholde hauen ondorioz andeatuak izan diren bide eta obretarako.

Auzapez Jaunak galdegiten du lau puntu horiei buruz erabaki bat hartzea.

Aho batez onartua.

### **4 – P.L.U/H.T.P: berrikuste orokorra**

F. Bardin Jaunak H.T.P.-aren berrikuste orokorraren nola abian ezar daitekeen azaltzen du:

- a) Lege eta arauzko bilakaerak gogan atxiki, hala nola
  - « Grenelle II » 2010eko uztailaren 10eko Ingurumenaren aldeko Engaiamendu Nazionala dakarren legea, eta beharrezko ingurumen ikerketa obratu (epemuga: 2017ko urtarrilaren 1a),
  - 2014ko martxoaren 24ko bizitegi bat eta hirigintza berri bat lortzeko legea (ALUR/BHBL).
- b) Lur eremuetako jabeek egin eremutze aldaketa eskaeren azterketa.

F. Bardin Jaunak oroitarazten du H.T.P. onartua izan dela 2009/11/09ko deliberamendu baten bitartez eta ondoko aldaketak ekarria izan zaizkiola, 1 zenbakiko aldaketa 2010/05/31n, 1 zenbakiko aldaketa sinplifikatua 2010/05/31n, 2 zenbakiko aldaketa 2010/10/18an, 3 eta 4 zenbakiko aldaketak, 2, 3 eta 4 zenbakiko aldaketa sinplifikatuak 2014/01/27an, 1 zenbakiko aldaketa sinplifikatua 2014/01/27an. H.T.P.-aren berrikuste orokorra burutu behar da.

P. Michelena Jaunak zehazten du deus erraiteko ez duela berrikuste horren printzipioaz baina oharrak egin nahi dituela kargu txostenean.

Auzapez Jaunak erraten du kargu txostena ondoko kontseilu batean aztertua izanen dela.

A. Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du nork duen kargu txostena burutu.

Auzapez Jaunak erantzuten dio hirigintzako zerbitzuek dutela egin, DDTM/DLIZ-arekin lankidetzan. Berrikustek bost urte guziz egiten dira guti gorabehera. Salbuespeneko kasuak aztertu

beharko dira, besteak beste U zonen bazterretan. Grenelle II gehi BHBL legeak ekartzen dituzten berrikuntza guziak gogoan atxiki beharko dira. Zehazten du hats luzeko lana izanen dela eta denak gomit izanen direla: hautetsiak eta biztanleak. H.T.P.-aren berrikuste batek bi urte eta erdi inguru irauten du eta epemuga 2017/01/01era finkatua da. Oraidanik behar da beraz berrikuste prozedura abian ezarri.

P. Bacardatz Jaunak galdegiten du nola atxik daitekeen Kanboko auzotegi historiko baten irudia eta hirigintza zaindu ez bada gutienezko azalera beharretsirik.

Auzapez Jaunak erantzuten du bere eskera aipatua dela gai ordeneko 5. puntuan. BHBL legea orokorrean ona da baina ez zaie lurralde batzuei egokitzen. Kanbo Hamar urtez desitxura daiteke zuhaitzak, berde gune pribatuak kenduz eta etengabe eraikitzen utziz.

F. Bardin Jaunak gehitzen du eraikitze galderak agertzen ari direla 400 m<sup>2</sup>-ko lur eremuetan.

Auzapez Jaunak iritzi bat emateko gomita luzatzen dio Herriko kontseiluari berrikuste orokor hau abian ezartzeko.

Aho batez onartua.

## **5 – Arkitektura eta ondareari balioa emateko gunea (AVAP/AOBG).**

Auzapez Jaunak informatzen du 2010eko uztailren 12ko legearen bitartez sortu dispositibo bat dela AOBG. Nazio mailako engaiamendua dakarren Grenelle II motako onura publikoko beharkizun batek du gaur egungo hiriko arkitektura ondarea eta paisaiaren babes eremua (ZPPAUP/HAOPBE) ordezkaturako, antolaketa iraunkor helburuak gehituz honen ondare hurbiltzeari besteak beste.

Kanbo hiriak ez du HAOPBERik, baina hirixka barneko ondarea babestea ahalbidetuko lukeen AOBG hori plantan ezartzeko xedea du.

Horretarako, AOBG-aren tokiko batzordea osatu beharko da. Horrela ordezkaturak izanen da:

- Administrazio-tako hiru ordezkari (Eskualdeko Prefeta, DREAL/EIABZ Eskualdeko Ingurumen Antolaketa eta Bizitegiko Zuzendaritza, DRAC/EKGZ: Eskualdeko Kultura Gaietarako Zuzendaritza),
- Kolektibitateko bost eta zortzi arteko hautetsi,
- Lau pertsona kalifikatu (hauetarik bi tokiko kultur ondarearen izenean eta bi interes ekonomiko eta sozialen izenean).

Batzorde honek, AOBG-ren sortzea, berrikustea edo aldaketaren segipena segurtatuko du.

Araudi berezi bat, HTP-koa osatuko duena, beste norbaiti kontrajar ziezazkiokeen xedapen idatzi eta dokumentu grafiko osatua izanen da.

Frantziako Eraikinetako Arkitektoa kontsultatua izanen da gure aldaketa, eraikuntza, baina ere bide, hiriko higari... mailako obra oro abiatu aitzin, eta errespetatu beharreko iritzi bat adieraziko du.

Auzapez Jaunak zehazten du, legeak gaur diren bezala aplikatzen uzten badira Kanbo ez dela gehiago ezagutzen dugun atsegin herria izanen. Herriak Assantza funtsa erosi du 8 000 m<sup>2</sup> hiri barnearen bihotzean atxikitzeko eta promotoreei buru egiteko. Kanbori ospea ekarri dion hiri

lorategi, hiri parkearen irudi bikaina zaindu behar da. Gure aitzinekoek helarazi diguten aberastasun bat da.

Kuraia behar da AOBG abian ezartzeko. Aterabide bakarra du hau Kanbok datozen belaunaldiek gure hiriaren irudia begira dezaten. Gure ardura da gauzak zinez ongi neurtzea.

Auzapez Jaunak proposatzen du prozedura abian ezartzea eta agertzen bada sobera bortxagarria dela, edo Kanbori ez egokitua, orduan gibelera egitea posible izanen da.

P. Michelena Jaunak galdegiten du AOBG-k eremu sailkatuaren bortxa berdinak dituen.

Auzapez Jaunak zehazten dio kolektibitateak duela kurtsorea eman behar.

P. Bacardatz Jaunak jakin nahi du arau bat ematen ahal zaion lokalak erabiltzeko moldeari.

Auzapez Jaunak baietz erantzuten dio kolektibitateak baitu, Estatuaren laguntzarekin kurtsorea emanen.

A. Hiriart-Urruty Andereak azpimarratzen du batzorde hau kolektibitateko bost edo zortzi hautetsiz osatua izanen dela eta kolektibitate hau zoin den galdegiten du.

Auzapez Jaunak erantzuten dio Kanbo dela.

P. Michelena Jaunak gehitzen du hautetsi hauek gehiengokoak bakarrik baldin badira, kontra bozkatuko dutela.

Auzapez Jaunak erantzuten dio oposizioa batzorde horretan izanen dela.

Auzapez Jaunak iritzi bat emateko gomita luzatzen dio Herriko kontseiluari AOBG prozedura hau abiatzeko printzipioaz.

Aho batez onartua.

## **6 – Hirigintza: kargu txostenaren onartzea eta kontsultaren abian ezartzea.**

Auzapez Jaunak abisatzen du, HTP-ren berrikustea alde batetik, eta beste aldetik AOBG baten plantatzea ongi eramateko gisan, komeni dela ikerketa bulego bat izendatzea kolektibitatea bi prozedura hauetan laguntzeko. Horretarako, komeni da kontsulta bat abian ezartzea Herriko kontseiluak balidatu beharko duen erantsi kargu txostenetik abiatuz.

P. Michelena Jaunak ohar bat egiten du H.T.P.-ren berrikuste kargu txostenari buruz eta bereziki berrikuste horren helburuen 2. puntua: « Biztanleriaren hazkundera faboratzea eta gizarteko aniztasunaren alde jadanik abian ezarri indarrak mantentzeko, beharrezkoak diren bizitegiei buruzko gogoeta bat eramanez (kantitate mailan bezain bat kalitate mailan ere). Erabakia izan zen « Faboratzea »-ren ordez, « Menean atxikitzea » ezartzea.

F. Bardin Jaunak berresten dio arrazoin duela eta « Menean atxikitzea » idatzia izanen dela « Faboratzea »-ren ordez.

A. Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du Auzapez Jaunak ideia bat ba ote duen eraikigarriak bilakatuko dituen lur eremuetaz ala ez eta Herriak proiektuak dituen.

Auzapez Jaunak ezetz erantzuten dio. Galdera guziak erregistratuak dira eta izanen dira eta Herriak ez du batere proiekturik momentuko.

A. Hiriart-Urruty Andereak seinalatzen du Kanpin-karren aparkalekua urez estalia izan dela. Lur eremu hau ez da eraikigarria momentoko baina badaki herriak eraikigarria bilakatzeko asmoa duela HTP-ren berrikustearen karietara.

Auzapez Jaunak erantzuten du galdera berezia dela eta molde berezian erantzunen diola.

R. Barbier Jaunak baiesten du lur eremu hori ez dela urez estalia izan.

A. Hiriart-Urruty Andereak galdegiten dio lur horren ikustera joan denez.

R. Barbier Jaunak uholdeen biharamunean erantzuten dio.

A. Hiriart-Urruty Jaunak zehazten dio biharamunean ez zela gehiago urik nehun, eta uholdeen eguneko lurra eta honen sarbidearen argazkiak erakusten ditu.

Auzapez Jaunak gomita luzatzen dio Herriko Kontseiluari azterketa bulego baten izendatzeko kontsulta balidatzea.

Aho batez onartua.

## **7 – Hirigintza: diru laguntza eskaera.**

Herriko Kontseilua ondokoen balidatzera gomitatua da:

- Estatuaren laguntza (DLIZ) H.T.P.-aren berrikuste orokor prozedurarako,
- Estatuaren laguntza (EKGZ) AOBG bat plantan ezartzeko.

Estatuaren laguntzen zenbatekoa hirigintzako dokumentuetarako, urtean behin gai horren inguruan biltzen den Konponbide batzordeak du erabakitzen. Laguntza horiek elikatzen dituen funtsa deszentralizazio hornidura orokorra (DGD/DHO) da.

Aho batez onartua.

## **8 –Saneamendu programa 2014: enpresaren hautatzea eta diru laguntza eskaerak.**

C. Devèze Jaunak oroitarazten du 2014ko saneamendu programaren kari (saneamendu sarearen bereizte, ur zikinen eta euri uren kudeaketa obrak), kontsulta bat deitua izan da joan den ekainaren 17an.

Baldintzapeko zatikako merkatu partekatu baten araberakoak izanen dira zerbitzuak, merkatu publikoetako kodearen 72. Artikulua aplikatuz. Ondotik zehaztu zati fermu bat eta baldintzapeko bi zatiren araberakoak izanen dira:

- Zati fermua: saneamendu sarearen bereizte eta zaharberritzea

✓ Jauretxeako bidexka eta Harriettako bidexka

- ✓ Errepirako bidexka,
  - ✓ Eskolako karrika
  - ✓ Zazpi Haritzen bidea
  - ✓ Pringle Etorbidea
  - ✓ Celhaya bidea
  - ✓ 5. galerna isurbideko gainisurbidea
- 1. baldintzapeko zatia: euri uren kudeaketa
    - ✓ Zazpi Haritzetako bidea
  - 2. baldintzapeko zatia: euri uren kudeaketa
    - ✓ Paskalekuko bidea.

Bi gutun helaraziak izan dira.

Deialdi publikoko batzordea 2014ko uztailaren 7an, astelehenarekin bildu da.

Guit gorabeherako zenbatekoa: 1 262 956,27 € ZG.

EHTP enpresa: 1 292 714,96 € ZG

ECRD/DUHALDE/SOBAMAT multzoa: 1 225 171,35 € ZG.

Herriko kontseiluari proposatua zaio gorago aipatu obrak burutuko dituen enpresa hautatzea, Auzapezari dagokion merkatua izenpetzeko baimena ematea eta Aturri Garona Agentzia eta Errobi Arro Isurkiko Sindikatuko laguntzak eskatzea.

P. Barcardatz Jaunak zehazten du, barne araudiak dion bezala, hamabost eguneko epearen errespetatze ezari buruzko mail bat igorri duela batzordeak deitzeko. Izan ere, zerbitzu publikoko ordezkatzeko batzorde berezirako deia 2014ko uztailaren 16an igorria izan da, 2014ko uztailaren 22ko bilkurarako.

C. Devèze Jaunak pentsatzen zuen batzordea fite biltzen ahal zela atxiki hautagaia hautatzeko. Auzapez Jaunak kontutan hartu du P. Bacardatz Jaunaren eskaera eta 2014ko uztailaren 22ko bilkura beraz, 2014ko agorrilaren 6ra gibelatua izan da, barne araudiak dionari jarraikitze gisan.

Herriko Kontseiluak erabakitzen du ECRD/DUHALDE/SOBAMAT multzoa atxikitzea 2014ko saneamendu programa burura eramateko, Auzapezari dagokion merkatua izenpetzeko baimena ematea eta Aturri Garona Agentzia eta Errobi Arro Isurkiko Sindikatuko laguntzak eskatzea.

Aho batez onartua.

**9 – Hiri bihotza – 4. zatia: obralariaren hautaketa.**

B. Jouglex Andreak, ondokoaz osatua den « Hiri bihotza » 4. zatiko programa azaltzen du:

- Elizaren ingurua: Terrasses karrika, Elizako plaza, St Laurent karrika zati fermuan.
- Chiquito karrika eta Xerri Karrika lotzen dituzten lau karrikarteak: Malgorenia bidexka, Betikatenia, Orguilanea, Goytino pasabidea baldintzapeko zatian.

Obren aurrekontua orotara 550 000 € ZG-tan estimatua da.

Obren menturazko iraupena bost hilabetetara estimatua da, prestakuntza hilabetea barne, obrak berantetik 2015eko maiatzaren 31rako burutuak izan beharko dutelarik.

Kontsulta bat abian ezarria izan da obralaria hautatzeko.

Bost kabinetek erantzun dute.

Auzapez Jaunak zehazten du Arbelbide/Berterretche Jaunek haien ordainsarien tasa %6ra apaldu dutela. Garrantzitsua dirudi kolektibitatea jarraitzen duen obralaria aitzineko zatiak burutu dituen berdina izan dadin.

Auzapez Jaunak mozketak bat proposatzen du hiri bihotzaren antolaketan 4. zati horren ondotik bai eta indar handi bat segurtatzea 2015 eta 2016an herriko bideei dagokienez. 5. zati bat izan daiteke Xerri Karrika eta 6. bat Saint Pé villatik Herriko Etxera doan karrikarekin

Auzapez Jaunak proposatzen du prezio apalena ez duen baina proposamen onena egiten duen Arbelbide/Berterretche kabinete atxikitzea.

N. Aïçaguerre Andreak galdegiten dun nongoa den kabinete hori.

Auzapez Jaunak erantzuten du arduradunak Baiona eta Biarritzekoak direla. Hemengoak dira eta haiekin eztabaidak konfiantza osoan eramaten ahal dira.

D. Irastorza Jaunak azpimarratzen du obrek 2015eko urtarrilan hasi behar dutela. Ez ote daiteke hobe obra horiek 2014ko urria, azaroan hastea, 2015eko otsailerako bukatuak izan daitezen, baina etxeak orduan berriz irekiak izanen baitira eta karrikako komertsantek Kanboko obrak ez ditzaten 2015eko maiatza arte jasan?

Auzapez Jaunak erantzuten du galdera hau heldu den astean egingen zaiela komertsantei Kanboko Merkatarien Batasunarekin egin beharreko bikuraren kariatara, baina komertsantei pentsatu behar dela ere Eguberriko besten garaian.

Obralaria hautatu aitzin, A. Hiriart-Urruty Andreak jakin nahi du zertan diren Kanboko finantzak. Obra batzuk behar-beharrezkoak ote dira orain, ez ote dira gibelatzen ahal?



Auzapez Jaunak erantzuten du obra horien auerekonta egina izan dela eta diru laguntzak eskuratuak izan direla. Ez badira orain burutzen diru laguntzak galduak izanen dira. Pentsatzen du hasian hasi, dena bukatu behar dela. Chiquito karrikara doazen karrikarteak gehigarri gisa ezarriak izanen direla eta ez direla bururatuko prezioa goregi baldin bada. Gaia berriz eztabaidatua izanen da datozen aurrekontu orientazioen kariatara.

P. Michelena Jaunak ohartarazten du oposizioak iritzi bat eman behar duela obralariaren hautatzeko, hauteskundeak aitzin hartuak izan diren erabaki batzuen ondorioz. Oposizioak trena martxan hartu du.

Auzapez Jaunak erantzuten dio nahiz eta trena martxan hartzen duten, bidaiariak ez direla ezezagunean barna benturatzen.

P. Bacardatz Jaunak galdegiten du Terrasses karrika hetsia izanen denez obrek iraunen duteno.

Auzapez Jaunak erantzuten du proiektu desberdinak aztertuak direla eta B. Jouglex Andereak aipatuko ditu datorren bilkura batean.

Herriko Kontseiluak Arbelbide/Berterretche kabinetea hautatzen du « Hiri bihotza » operazioaren 4. Zatia bururatzeaz arduratuko den obralari gisa (ordainsari tasa: %6), eta Auzapezari dagokion merkatua izenpetzeko baimena ematen dio.

Aho batez onartua.

## **10 – Eskoletako garraioak: eskolako erritmoen erreformari lotu gehigarria.**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio herriak eskolako garraio eskumen bat betetzen duela bigarren heineko aginte antolatzaile gisa (AO2/AA2) Departamenduaren delegazio baten bitartez.

Eskolako erritmoen erreforma aplikatzeko gisan, eta DASEN/HNZAZ-ak behar den bezala onetsi eskola denboraren Antolaketa Proiektuaren arabera, komeni da eskolako 5. egun batek eragin ditzakeen garraio kostuak ezin hobeki identifikatzea.

Gidamendu fresei eta kilometro fresei, asteazkenei dagozkien 34 egun gehiago sartu behar zaizkie.

Bosgarren eskola egunarekin berriz kalkulatu garraio kostu horiek kalkulu oinarri gisa erabiliak izanen dira departamenduko diru laguntzarako, hau eskubidea duten ikasleen kopuruan oinarritzen dena, departamenduko garraioetako araudiaren arabera.

Hastapeneko merkatuaren zenbatekoa:	215 879 € ZGB
Gehigarriaren zenbatekoa:	6 966 € ZGB
Merkatuaren zenbateko berria:	222 845 € ZGB

Auzapez Jaunak, herria Miral garraio enpresari lotzen dion merkatuaren gehigarria izenpetzeko baimena berari emtaea galdegiten dio Herriko Kontseiluari.

P. Lespade Andereak ez du bozkan parte hartzen.

Onartua.

## **11 – Arnaga sartzeak: Prezioen finkatzea.**

A. Pontacq Andereak, 2015 eta 2016 denboraldietarako 2015eko urtarrilaren 1etik goiti aplikatuak izanen diren prezioak aurkezten dizkio Herriko kontseiluari:

- Helduak bakarka: 8 €
- Heldu taldeak: 6,50 €
- Kolegio, lizeo eta fakultateko ikasleak: 4 €
- Eskoletako eta 7 eta 12 urte arteko haurrak: 2,50 €
- Ahalmen urriko pertsonak: urririk, laguntzailea: 4 €
- Langabeak: 4 €
- « Partaide turistikoak » lehentasunezko prezioa (VVF/FOH, CE/EK, Gîtes plus karta, Bide historikoa, Guneak eta Museoak...): 6,50 €
- 7 urte petiko haurrak: urririk
- Familia prezioa: urririk 3. haurretik goiti
- Ikuskizun prezioa: 12 €
- Hitzordua lorategietan (erakusketariak): 30 €

Auzapez Jaunak galdegiten du iritzi bat ematea prezio hauei buruz. Aho batez onartua.

## **12 – Bestak eta ospakizunak: sartu beharreko xahutzeak.**

C. Deveze Jaunak biltzarra abisatzen du Zerga Etxeak, 2011z geroz, hauteskunde guzien ondotik, eskatzen duela Herriko Kontseiluak deliberamendu bat har dezan besta eta ospakizunen xahutzeak 6232 eta 6257 artikuluetan sartzeari dagokionez.

Herriko Kontseiluari proposatua zaio:

1º) Besta eta zeremonia ezaugarria, zinezko sentsuan, duten xahutze eta fres guziak 6232 kontuan zenbatzea, oharra eginez errepikatzen direla usu. Adibide gisa aipatzen ahal ditugu urte hastapeneko agiantzei, lore azao, buketa, sortze, ezkontza eta beste gertakizunei lotu opariak erosteari, su artifizialei, erakusketei, estrena eta gomit bestei, Eguberriko argitzei, Eguberri kari eskoletako haurrentzat antolatu ikusgarria eta arratsaldeko askariari, herriko langileen haurrentzako Eguberriari, izaien erosketari, herriko bestetako langileen hurrupaldiari, urte bukaerako herriko langileen apairuari, kopa eta bandera erosketari lotuak diren ospakizunak, parekatzeari bai eta kanboar berriei eskaini harrerari lotu xahutzeak;

2º) Noizteinkako gomit beste lotu xahutzeak M14 kontable koadro berrian aurreikusi 6257 kontuari zuzenki esleituak izanen direla, bereziki herriko bestetako apairua inguru etako herrietako auzapezekin bai eta administrazio ordezkariekin.

Aho batez onartua.

### **13 – Assantza kultur eremua: diru sartzeen batzorde baten sortzea.**

Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari proposatzen dio diru sartzeen batzorde bat sortzea, Assantza kultur gunean egiten den liburu salmentatik lortu diru sartzeen biltzetik.

Aho batez onartua.

### **14 – Ehorzketa ordainsariak.**

Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari jakinarazten dio ehorzketa ordainsaria 20 €-tan finkatua dela 2009ko apiriletik. Legearen arabera ordainsari gorena 25 €-tan da.

Auzapez Jaunak proposatzen du ordainsariak emendatzea eta 25 € -tan finkatzea 2014ko urriaren 1etik goiti. Aho batez onartua.

### **15 – Mediateka: Bildumen erreberritzea.**

P. Lespade Andreak, herriko liburutegiko bildumen baitan lekurik gehiago ez duten dokumentuen kentzeko irizpideak eta modalitateak beherago aurkeztu bezala zehazteko eraman herriko liburutegiko bildumen erregulazio politika azaltzen du:

- Egoera fisiko txarra (konponketa ezin burutuzkoa edo karioegia gertatzen delarik) edo itxura guzien arabera, eduki zaharkitua: kenduak izanen diren obra eta arrazoin horrengatik ordezkatuak, suntsituak izanen dira, eta, ahal bada, erreziklatzeko paper bezala erabiliak izanen;
- Ale gehiegi beharren aldera: arrazoin horrengatik kenduak izanen diren liburuak, hauen beharra ukan dezaketen instituzio batzuei (liburutegi ttipiak, ospitaleak, Hirugarren Mundua edo Ekialdeko Europarekin lankidetzan ari diren elkarteak, etab...) proposatuko zaizkie edo, ezin bestean, suntsituak izanen dira eta, ahal bada, erreziklatzeko paper bezala erabiliak izanen.

Kasu guzietan, obren kentzea, kenduak izan diren obren kopurua eta haien destinazioa aipatzen dituen bilkura agiri baten bidez egiaztatua izanen da, eta honi idazlea, titulua eta inbentario zenbakia dakartzaten kendu dokumentuen egoera bat erantsiko zaio, egoera honek fitxa pakete baten itxura edo zerrenda batena hartuko du.

Sylvie Dupon Anderea, herriko liburutegiko arduraduna, bildumen erregulazio politikaren obratzeaz ardura daiteke, gorago zehaztua den bezala bai eta kentze bilkura agiriak izenpetzeaz ere.

Aho batez onartua.

### **16 – Botere publikoak Estatuaren emaitzen beharakada masiboaren ondorioetaz goraki abisatzeko AFM/FAE-en jardueri sustengu mozioa.**

Biziki jokatzeko leku guti ukanen duten lurralde kolektibitatei Estatuak ekarri laguntzen murrizte abisuei dagokien AMF-aren mozio proiektua azaltzen die Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari.

Tokiko kolektibitateak, eta lehen lerroan herriak eta haien herri artekoak, izugarri larriak diren diru mailako zailtasunak masiboki jasateko arriskuan dira. 2015-2017 urteetan deklinatua izanen den 50 miliar euroko ekonomia plan baten kariatara, Estatuak eman diru laguntzak apalduko baitira:

- 11 miliar euroz apurka 2017 arte,
- orohar 28 miliar euroko apaltze metatu bat 2014-2017 garairako.

Testuinguru horretan, AMF/FAE-ko bulegoak, aho batez, ekintza azkar eta kolektibo bat eraman nahi izan du egoera molde objektibo batekin azaltzeko eta botere publikoak goraki abisatzeko gure lurraldeetan, haien biztanleengan eta enpresetan iragarri neurriek ukanen duten eraginaz. FAE, herri eta herri arteko 36 000 kidez osatu elkarte pluralistak, betidanik diskurtso arduratsu bat hedatu du xahutze publikoen ezinbesteko menperatzearen alde; horrela, lasaitasun handienarekin du gure laguntzen % 30eko apaltze hori salatzen. Nolanahikoak izan tokiko ekintza publikoa arrazoinalizatzeko, mutualizatzeko eta gaurkotzeko egin indarrak, FAE-k abisatzen du kolektibitateek ez dutela haien baliabideen murrizte hain azkarra jasaten ahaliko.

Izan ere, alternatiba bakarra, tokiko zerbitzu publikoak eta inbestizamendua hunkituko dituzten hautaketa mingarriak egitea izanen da, haien ahalak mugatzen dituzten bortxak direla medio (xahutzeen zati baten zurruntasuna, Estatuaren karguen eskualdaketa etengabea, normen inflazioa, gure herrikideei zaila egiten zaie zerga presio orokorra jasaitea).

Kanbo herriak oroitarazten du hurbileko kolektibitatea, herriak berak eta herriarteko elkargoak, haien esku hartzeko molde desberdinen ondorioz, ekintza publikoaren muinean direla gure gizarteko erronka nagusiei dagokienez:

- haien herritarren eguneroko bizia errazten eta « elkar arteko bizi ona » bermatzen dituzte;
- haien lurraldean kokatuak diren enpresak laguntzen dituzte;
- azkenik, zeregin nagusi bat dute inbestizamendu publikoan, hazkunde ekonomikoa eta enplegua horrela sustatuz.

Tokiko baliabideen murrizketa hertsagarriak, krisi ekonomiko eta sozialak jadanik hain azkarki hunkitzen dituen gure herrikideak zigortuko ditu epera, eta kontu publikoak suspertzeko arrunt beharrezkoa den berrabiatzea ahul dezake.

Bestalde, kanbo herriak dio zenbait hedabide kolektibitateen kontra burutu eraso errepikatuak usu axalekoak eta bidegabekoak direla.

Arrazoin guzi horien gatik ditu Kanbo herriak FAE-ko eskaerak sustengatzen:

- Estatuaren laguntzen murrizte planaren azterketa berria,
- kargu eta neurri arauemaileak berehala gelditzea, xahutzearen inflazio iturri direlako,
- eztabaida eta negoziazio aginte nazional baten urgentziako bilkura bat tokiko kolektibitateen aitzinkontuetan eragina duten nazional eta europar politika publikoak berriz aztertzeke.

Aho batez onartua

## **17 –« Ekonomia » batzordea.**

Gaur egungo « Ekonomia » herriko batzordeak gai biziki desberdinak tratatu behar ditu.

Lehen esperientzia hauen ondorioz, Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari proposatu dio bi batzorde berri sortzea jadanik dagoen « Ekonomia » batzordetik abiatuz eta bi batzorde hauetako kideak izendatzea:

- 1) « Osagarria – termalismoa – turismoa » batzordea
- 2) « Ekonomia – merkataritza – eskulangintza » batzordea.

A. Hiriart-Urruty Andereak oroitarazten du gaika lan egitea aurreikusia izan zela.

Auzapez Jaunak pentsatzen du hobe daitekeela batzorde hau bitan zatitzea eta Herriko kontseiluari galdegiten dio gai honi buruz iritzi bat ematea.

Aho batez onartua.

Auzapez Jaunak, batzorde hauetarako gehiengoko hautagaien zerrenda ematen du, eta oposizioari bi hautagai proposatzea galdegiten dio.

A. Hiriart-Urruty Andereak bere burua aurkezten du bi zerrendetarako N. Aicaguerre Anderearekin « Osagarria – termalismoa – turismoa » batzorderako eta P. Bacardatz Jaunarekin « Ekonomia – merkataritza – eskulangintza » batzorderako.

Ondorioz:

- 1) « Osagarria – termalismoa – turismoa » batzordea:

Eliane AIPURU	Patrice DOR
Didier IRASTORZA	Jean-Jacques LASSUS
Henri SAINT JEAN	Véronique LARRONDE
Roger BARBIER	Yolande HUGUENARD
Argitxu HIRIGOYEN	Corinne OTHATCEGUY
Peio ETCHELECU	Argitxu HIRIART-URRUTY
Nathalie AICAGUERRE	

- 2) « Ekonomia – merkataritza – eskulangintza » batzordea:

Patrice DOR  
Bernadette JOUGLEUX  
Peio ETCHELECU  
Vincent GOYTINO  
Roger BARBIER  
Véronique LARRONDE  
Philippe BACARDATZ

Jean-Jacques LASSUS  
Jean-Noël MAGIS  
Yolande HUGUENARD  
Pascale LESPADE  
Eliane AIZPURU  
Argitxu HIRIART-URRUTY

Auzapez Jaunak galdegiten du biltzarrak isilpean bozkatu nahi duenez.

Erantzuna ezezkoa da.

Aho batez onartzen da bi batzorde berri horiek sortzea.

## **18 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Auzapez Jaunak oroitarazten du lurralde kolektibitateetako kode orokorreko L. 2122-22 et L.2122-23 artikulua eta Herriko kontseiluak 2014ko apirilaren 7an hartu erabakiaren ondorioz, 2014ko ekainaren 17tik 2014ko uztailaren 11rako hiriko lehentasunezko erosteko eskubideari dagozkion ezezko erabakiak ezagutzera emanen direla

- Lur zatia: 1
- Etxea: 3
- Apartamentua: 2

## **19 – Orotariko gaiak.**

Auzapez Jaunak proposatzen du mozio gehigarri bat onartzea La Nive arta etxea Itsasuko herrian atxikitzeko. « La Nive » CSSR-aren birkokatze proiektuak, arta etxea Biarritzeko Aguilera poliklinikara lekualdatzea bilatzen du.

Herriko interesa da lekualdaketa hau ARS, Prefeta, hautetsien aitzinean salatzea. Ez dugu onartzen ahal gure lurraldea bipildua izan dadin, enplegua mantendu behar dugu gure barnealdeko bizi eremuan.

Itsasu Herria eta Kanboko Osagarri gunearikiko elkartasunez, osagarri jarduera horiek Kostaldean biltzeko tendentzia horren kontra altxatu behar dugu. Ez dugu onartzen Euskal Herri barnealdeko eskaintza, dagozkion enpleguekin pirka pirka ttipitua izan dadin.

Auzapez Jaunak proposatzen du Itsasuko Herriko kontseiluak bozkatu duen mozioa onartzea zentroa Itsasu herrian mantentzea eta Biarritzera lekualdaketa uko egitea galdeginez.

Aho batez onartua.

C. Deveze Jaunak azpimarratzen du Itsasutik haratago ontsa litzatekeela alderantzizkoa gerta dadin beste herrien partetik.

- ◆ P. Michelena jaunak galdegiten du zer egina izanen den termalismo etxea ohiarekin.

Auzapez Jaunak jakinarazten dio bere taldeak gai hau gogoetatu duela baina ez da behin betiko erabakirik mementoko. Zehazten du bisita daitekeela, eta desiratzen du bigarren solairuko apartamendua bikote gazte bati emana izan zaitzaion. Arta etxeei eta haien elkartearen (10 arta etxe) esku utzi beheko solairua eta lehen solairua gelditzen dira. Etxeetako zuzendariei eskatua izan zaie, gure laguntzailearen bitartez, erantzun argi bat eman dezaten 2014ko iraileko. Hipotesia desberdinak izan daitezke: beheko solairua lanbide liberala...

Lehen solairua: 70 m<sup>2</sup>-ko T3 etxebizitza

P. Michelena Jaunak galdegiten du elkarte batek erabil ditzakeenez lokal horiek.

Auzapez Jaunak jarduera ekonomiko bat nahiago luke.

- ◆ P. Bacardatz Jaunak galdegiten du zer den aurreikusia elkarteekin Debarekiko parekatzearen kariatara.

P. Etchelecu Jaunak zehazten du bilkura bat aurreikusia dela heldu den astean Herriko kontseiluko ordezkari eta Debakoekin, parekatze horren garatzeko eraman daitezkeen ekintza guziak ikusteko.

Saioa bukatutzat eman aitzin, Auzapez Jaunak bere kideei oroitarazten die ez dela bilkurarik izanen agorrilan eta Kanboko besta onak desiratzen dizkie denei.

Saioa 23:15etan bukatu da.